

Abokatu Euskaldunak

¿ Justizia Euskaraz, zergatik ez?

Bizkaiko Bazkuneko Abokatu Euskaldunen Batzordeak galdera honi erantzun nahi izan zion ekainaren 27an eta horretarako, jardunaldi bat antolatu zuen Praktika Juridikora Eskolarekin batera.

%Euskaldunok, atzerritar sentitzen gara auzitegietara jotzen dugunean, izan ere, gure jatorrizko hizkuntzan aritu nahi dugunean, itzultzaile eta itzulpenen bitartez espresatu behar gara+. Hitz hauekin hasi zen Jardunaldia.

Hizlari guztiei galdera bera egin zitzaion: zer da beharrezko epaiketa osoa euskaraz egiteko (itzultzailerik gabe) eta zer arazo ikusten duten hori gauzatzeko.

%**Abokatu eta Hiritarrek euskarazko eskaera gehiago egin behar dituzte**. Jone Agirrereren aburuz, Euskal Autonomi Erkidegoko Justizi Auzitegiko, zigor eta zibil arloetan, idazkari judizialarentzat hori da beharrezko, besteak beste, Justizia euskalduntzeko. Horrez gain, datu konkrituak eman zituen Justizian aritzen ziren langile euskaldunei buruz: 23 magistratu, 23 idazkari judizial eta 22 fiskal. Honek, asko ematen badu ere, oso gutxi da kontuan harturik Bilbon bakarrik zibil arloan 13 epaitegi daudela kontuan hartzen badugu. Horrez gain, urtarrilean, Azpeitian proiektu berri bat hasi zen eta beste barruti batzuetara zabaldu da: epaitegien zitazioetan galdetzen hasi dira zer hizkuntzetan nahi duten hitz egin. Bake epaile eta erregistroetan euskaraz asko aurreratu da. Eta hainbat esperientzi pilotu egin dira nahiz eta etsituak izan. Bere aburuz, garai ona da egoera aldatzeko.

Bizkaiko Probintziako Entzutegiko Fiskaltzatik aldiz, Leire Unzuetak zera azalarazi zuen: euskararekiko egoera eta jarrera asko hobeto egin dela nahiz eta euskara juridiko teknikoarekin arazo batzuk izan. Hau hobetzeko, **ikastaro batzuk eta beraz, laguntza ekonomikoen beharra** sentitzen zuen. Horrez gain, ikasketak euskaraz egin dutenen ikasleei oposaketak egitera gonbidatu zuen.

Justizia langileen L.A.B. sindikatuaren ordezkariak, Loreto Cabo Maguregiren ustez, legeak aldatu, kanpainak sortu, eta erabaki politiko ausartak hartu beharko lirakeela uste zuen. Hau da, botere politikoaren aldetik hizkuntzaren normalizaziorako benetako asmo eta estrategien beharrak ikusten zituen eta horretarako, **Justizian euskaraz aritzen diren langileei tresna egokiak, formazio jarraituak eta euskaraz ikasteko erraztasunak eman beharko litzaieke.**

Lehenengo Zigor arloko Bizkaiko Probintzia Entzutegiko Magistratuak, Juan Manuel Iruretagoienak ere, Jone Agirrerekin bat egiten zuen, hau da, Justizian euskarazko eskaera gehiago behar zirela, eskaera masiboak, izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoak berak, gaztelaniari lehentasuna ematen baitio. Horrez gain, epaiketan parte hartzaile guztiek euskaraz jakin beharko luketela uste zuen, lekukoak barne.

Abokatu Euskaldunen ikuspuntua adierazteko, Jaime Elias etorri zen, bere aburuz, abokatuak bere bezeroa ahalik eta hobekien defendatu behar du eta horretarako, zintzoa izan behar du bere bezeroarekin. Hortaz, euskaraz hasten bada justizia eskaera, gaztelaniaz baino denbora gehiago luzatuko zaiola azaldu behar dio bezeroari (denbora bikoiztu egin daiteke). Horrez gain, atxilotu bat euskaraz deklaratu nahi badu, itzultzailea etorri arte itxaron beharko du eta beraz, ziegan denbora gehiago itxaron beharko luke eta beraz, bere eskubideak tematurik izango lirateke. Epailak euskaraz jakitea oso garrantzitsutzat jo zuen eta Bazkuneko Euskara Batzordeak duela 5 urte plazaratu zuen epaitegi elebidunen eta euskal zirkuituen ideiak azaldu zituen, hau da, **prozeduraren hasieratik sententzia-ararte euskaraz egitearen** ideia defendatu zuen Justizia euskaraz lortzeko.

Hizlarien iritzien ondorioz, debaterako aukera zabaldu zen, han, denen artean, ondorio hauetara heldu ziren:

Atzera pausuak:

Duela urte batzuk auzitegietan %60 euskararen trebatzaileak egoten ziren, hauek, epaiketa bat euskaraz zegoenean, alderdi guztiak, itzultzailea barne, koordinatzen saiatzen zen. Lehen, 14 trebatzaile zeuden, egun 2 baino ez.

Gaur egun, abokatutzan jarduteko master bat burutu behar da nahitaez hezkuntzan eman ziren aldaketen ondorioz. Masterra honek, egun, Euskal Herriko Unibertsitateak ez du euskaraz eskaintzen, gaztelaniaz baino ez dago.

Etorkizunerako Ideia berriak:

Justiziako langileek euskarazko elkarte bat sortuko balute oso baliogarria izango litzateke auzitegien barne euskara bultzatzeko.

Zerrenda bat egin euskarazko Justiziako langileek nortzuk diren jakiteko eta haiengana euskaraz jo ahal izateko. Hauek txarteltxoekin e.a. identifikaturik egotea. Eta Justizian aritzen diren agente guztiak elkartu eta harremanak zabaltzea. Hau da, sare bat sortzea.

Justiziako langileentzat (epaile, fiskal idazkari e.a.) euskaraz jakitea betebeharrezkoa egitea. Legez ezarririk.

Euskal Herriak, Estatu espainiarraren legeditik kanpo geratu behar da. Izan ere, Espainiako legediak Espainiako eskubideak eta ideiak hobesten dituelako eta

beraz, ez du euskara behar bezala babestuko, aitzitik, euskararen kontra joko duelako.

Azken ondorio bezala zera aipatu daiteke: denok batera ez badugu lanik egiten, ezinezkoa izango da euskara Justizian normalizatzea.